

## **Funtsezko bazkideak**

Proiektua ongi funtzionatu dezan, bazkideakaz harreman ona finkantzea ezinbestekoa dala uste dogu. Gainera, proiektu honek balore batzuk dauz eta oso garrantzitsua da bezeroek berberak partekatzea.

- Janari hornitzaileak ezinbestekoak dira prozesu honetan. Baratzeetako hornitzaileak dira funtsezkoenak. Hala ere, fruta-dendetatik eta supermerkatuetatik lehengaiak lortu nahiko geunkez, han saltzen diran produktuak aprobetxatzeko ere. Baserritarren bazkidetzak lortzeko, baserrietara joatea eta beraiengan interesa daukagula transmititzea da geure xedea, komunikazioa aberatsagoa izateko. Kontsumo taldeen erabilera ere egin nahi dogu, baratze gehiagogaz lotuta egoteko. Honetaz gain, Bilboko supermerkatuakaz harramak estutu nahi doguz. Esate baterako, Eroski, Aldi, Carrefour, Hipercor...
- ELIKA fundazioak, Eusko Jaurlaritzaren babesak daukanak, hondakin ezaren aldeko elkarte bat da eta aliantza bat sortzeko aukera posiblea ikusten dogu, baloreak eta helburuak partekatzen doguzalako. Programa honek hainbat udelerrigaz lan egiten dau: Arratia, Arrasate, Artea, Bakio, Balmaseda, Berango, Bilbo, Burgelu, Deba, Donosti, Errenteria, Eskoriatza, Gordexola, Izurtza, Mungia, Sondika, Tolosa, Gasteiz, Zaldibar eta Zumaia.
- Garraio enpresa. Lehengaiak geure lokalera eramateko furgoneta bat beharko dogu hilabeterako. Horretarako, leasing-a egingo dogu, hilabetero kotxe bat alokatuz. Horregaitik, geure proiektuari laguntzeko prest dagoan hornitzaile bat beharko dogu.
- Bankuak. Negozioagaz hasteko, kreditu bat eskatu beharko dogu. Hortaz, konfidantzazko eta geure baloreak partekatzen dauzan banku baten laguntza beharko dogu. Esate baterako, Fiare bankuak proiektu txikiei laguntzeko proiektu bat dauka.
- EHNE-Bizkaia (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) nekazaritza-sindikatu da, 1976-1977 urteetan sortu eta legeztatutako nekazaritza-erakunde profesionala. Euskal Herrian elikagai-subiranotasuna bultzatzea da elkarte honen helburu nagusia. ELIKA fundazioa bezala, elkarte hau geure aliatua izan daiteke, xede berbera daukagulako eta lagungarriak izan ahal garalako. Gainera, hornitzaileekaz komunikazioa errazagoa izango leiteke.
- MerkaBilbao Bilboko Handizkako Merkatu Zentralen eta haren eragin-eremuaren zerbitzua kudeatzen dauan merkataritzako sozietate anonimoa da. MerkaBilbao 24 elikagai-unitatek osatzen duten MERCASA sareko kide da. Elikagai unitate handiak tranportatzeko, bazkidetza hau onuragarria da.
- Lizentziak, baimenak, eta abar lortzeko, udaletxeko informazio zentrorra joango gara, tramite guztiak ondo egiteko.
- Diru laguntzak lortzeko, Fiare banko etikoagaz harrematen jarrtzea nahiko geunke.